

Lurpeko erreken bila



Ametz Arzallus
Maialen Lujanbio

Rezola sagardotegian bildu gara (Astigarraga, Gipuzkoa), burua esanahiz eta esaloretz ereinda duten Amets eta Maialenekin. Sabeletik hitz egin digute, txapelketaren barrunbeez. Ideiak fresko eta helburuak argi mantentzeko distantziatik jarraitu dute txapelketa, baina BECecko eskaileretara inguratzeko ordua iritsi da.

Estitxu Eizagirre

Argazkiak: Dani Blanco

Zer nabarmenduko zenukete aurtengo txapelketatik?

M. Lujanbio. Ez naiz sentitzen balorazio artistiko bat egiteko gai, saio gutxi entzun baititut. Sinbolikoki, esanguratsua iruditu zait emakumeen presentzia. Aurtengoa izan da lehen txapelketa, saio guztietan emakume bat egon dena. Uste dut inflexio puntu bat izango dela zentzu horretan. Bertso

eskolen lanari buruz eta bertsoaren bideari buruz asko esaten du. Gero aztertu beharko da funtsa, baina datu bezala inportantea da. **A. Arzallus.** Beste puntu nagusi bat jendea da. Masa fenomeno bihurtu da guztiz, eta poza ematen dit. Gaur bizi gara irudiaren munduan, eta mundua gero eta eskurago dugu –beno, zer mundu, hori beste debate bat da–, euskaldun baino gehiago gara



Amets Arzallus: "Nola bertsoaritzatza oso euskal mundura begira bizi den, eta kazetaritzatik ere edateko aukera izan dudanez, nire ahalegina bada baita ere munduko problematikak perzibitzea. Zure bertso laburrera munduko printza bat ea ekar zenezakeen, ez arazoa konpontzeko baina behintzat presente egoteko".

munduko eta amerikano... Eta euskarazko hitz hutsarekin zer erakarpen indar sortzen den, hori oso fenomeno esanguratsua eta polita iruditzen zait. Eta bestaldetik bertigo pixka bat ematen dit, zerk eragin du, zer eskaintzen ari gara masan datorren jende horri... Hori bakoitzak aztertu behar du bere barrutik.

M. Lujanbio. Euskarazko fenomeno kultural handiena da. Beti dugu arrakastaren beldur hori, gehiegi izango ote den, desbirtuatu egingo ote den... Baina kontuan hartu behar dugu gauden egoera soziopolitiko eta soziolinguistikoa horrelako fenomeno bat oso garrantzitsua dela. Bertsolari beteranoenon lana da hori dena edukiz betetzea eta kokatzea bere testuinguruan. Sinistea badugula zeresana, badugula gaiei buruzko ikuspuntu bat, gauzak esateko modu artistikoki landu bat... Gure egitekoa da jende burrunba hau eta oihartzun mediatiko hau ez dadila burbuila bat izan, inon oinarririk eta errorik ez duena, eta ez dadila bertsolaria pirueta formal eta estetikoetan geratu. Erroa du gure hizkuntzan, gure gaurko testuinguruan, eta bertsoa beti lotuta egon da bere errealitateari.

A. Arzallus. Ni kontziente nintzen Iruñeko saioa txapelketako finalerdi bat zela eta bertsolaria, ni barne, hor ari zela jokatzeko

bere etorkizunaren zati bat. Baina baita ere saioa zela Iruñean, horrek esan nahi duen guztiarekin, eta Iruñean euskarak eta bertsoak bizi duten egoera kontuan hartuta, txapelketaz aparte bazegoela beste konpromiso bat saioari bere erroak eta gorputza leku hartara lotzeko. Nire bertsoetan horri erantzuteko nahia banuen. Hendaiaokoak eta Uztaritzekoak ere bazuten konotazio hori, muga gainditzen delako. Bertsolariari horri erantzutea ere badagokio. Bertsoa oso lotuta dago bere lur eta girora, eta nik hortik aparte ez dut ulertzen bertsoa, ezta txapelketa ere. Euskal Herriko Txapelketa Nagusia izenean, bizi garen egoeran nik garrantzi handiagoa ematen diet lehen bi hitzei, azken bi hitzei baino. Euskal Herriko horrek badu bere funtsa eta bertsoa horri atxikia da. Bestela nik neure burua ez dut ikusten bertsoetan.

Konpromisoa da oraingo garaian gai politiko-
ei bat-batean erantzutea?

A. Arzallus. Nire barruan ez dut sentitzen beldurrik pentsatzen dudana esateko, horrek edozein ondorio eduki badezake ere. Bertsoa da zeresana eta nola esana. Eta horrelako kasuak asko oinarritzen dira gauza bat nola esan duzun. Bertsoak ematen dizu beti ihesbide bat, esan nahi zenuen

hori beste modu batera esateko, eta aldi berean lan ariketa interesgarria da. Baina ez dut autozentsurarik sentitu nahi, hor erortzea okerrena litzateke. Nahiko lan badugu kantatu behar ditugun bertsoekin, ez nuke inola ere entrenatu nahi ixildu beharreko bertsoetan. Ixildutako bertsoak geratu behar bazaizkit barruan, ez nuke bertsoetan segitu nahiko. Bada konpromisoa gai politikoetan kantatzea, baina ez diot beldurrarekin aurre egiten.

M. Lujanbio. Orokortuz esango nuke hau litzatekeela bertsolariaren izate ideala: pertsona bat gaiekiko bere ikuspuntua landu duena, pentsatu duena non kokatzen den gaiekiko eta gertakizunekiko. Bertsolari gisa eduki behar dituzu ardatzak ongi finkatuta, eta ardatz horietatik landu dezakezu edozein gai. Nik behintzat horra bidean joan nahi dut, eta horra bidean Euskal Herriko gatazka politikoa da beste gai bat. Klabea da zu kokatuta egotea gaiekiko, iritzi bat edukitzea. Hori mamituta baduzu, neurtuko duzu zer esan eta nola. Bertsolariak gure ibilbidean hori lortzera goaz, paraleloki beste lanketa batzuk eginez: estetikoak eta abar. Baina lanketa ideologiko (zentzu zabalean) hori ezinbestekoa da.

Zer da orain egiten saiatzen zaretena bertsoa osatzerakoan?

M. Lujanbio. Nahiko nukeena da jartzen dizkiguten gaiak nire baitatik pasa ondoren kantatzea. Izan dezatela nire arrasto bat. Nire filtro eta digestiotik pasata gero kantatzea lortu nahi nuke. Eta ez gaia entzun eta buruan errebote bat eginez inertzietatik edo azaleko formekin erantzun. Bertso gintza lurtartzen saiatzen ari naiz, errealitatean

“Ardatzak ongi finkatuta eduki behar ditu bertsolariak. Klabea da kokatuta egotea gaiekiko, iritzi bat edukitzea. Hori mamituta baduzu, neurtuko duzu zer esan eta nola.

Lanketa ideologiko hori ezinbestekoa da”

MAIALEN LUJANBIO

rekin edo behintzat nire errealitatearekin lotzen, niri interesatzen zaizkidan tematika eta sentsibilidadeekin. Nahi ez nukeena da burbuila batean jardutea, errorik eta oinarririk gabe dagoen bertsoak izatea, errealitateari lotu gabea, ariketa estetiko bat. Gai horrek sortu ditzala oihartzunak nire barruan, eta nire buruari entzun eta gero kantatu nahi dut.

A. Arzallus. Gu Egaña, Lizaso, Peñagarikano, Sarasua eta horien belaunaldi osoaren ondo atzean etorri gara, eta baita Lujanbio, Elortza, Iturriaga, Mendiluze eta horiek baino ondo atzerago. Bertso eskolan hasi ginenean, gure eredutxoak horiek denak ziren, gure bertso eskolako ikasketa garai guztia izan da Egañaren garaia. Eta orduan txapelduna imitatzen saiatzen zara. Txispak bilatzen dizkiozu barrenak bilatu ordez. Ondoren Lujanbioren belaunaldiarekin gertatu zitzaidan, eta batez ere Lujanbiorekin, 2001ean zer-bait berria sumatu nizulako: imitazioaren joko berdina. Eta etengabe imitazioaren eta desimitazioaren soka tira horretan zabilta, zure hari

propioak non aurkituko. Norberaren erronka da (hau da nire kezka), eragin horiek barruan izanik eta batzuetan horiek itzal egiten dizutela kontziente izanda, ea zure bidexka nondik bilatu zenezakeen. Ni, denen artean bila sentitzen naiz oraindik.

Bestalde, bada modu inkontziente bat norberak garatzen duena bertsoetan egiteko. Zoritxarrez, bertsoetan askotan egin behar baduzu, askotan egiteak beti irekitzen dio bidea piloto automatikoari. Hartzen dituzu automatismo batzuk, esapide batzuk, oin batzuk baita ere, eta doinu batzuk, gero inertzia indar handia hartzen dutenak eta





Maialen Lujanbio: "Nahiko nukeena da jartzen dizkiguten gaiak nire baitatik pasa ondoren kantatzea. Izan dezatela nire arrasto bat. Nire filtro eta digestiotik pasata gero kantatzea lortu nahi nuke".

batzutan zapaldu egiten zaituztenak. Eta ni sentitzen naiz modu inkontziente horiek detektatu nahian eta ahalegin-zen gero eta modu kontzienteagoan bertsoan egiten, inkontzientziaren karga bazter-zen. Oraindik asko bilatu behar dut, gero eta bertso kontzienteagoen bila.

Eta azkenik, nola bertsolari-tza oso euskal mundura begira bizi den, eta kazetaritzatik ere edateko aukera izan dudanez, nire ahalegina bada baita ere munduko problematikak pertzibitzea, eta bide bat daukadanez, ahal denean hori ekartzea gure kezken mundura. Zure bertso laburrera munduko printza bat ea ekar zenezakeen, ez arazoa konpontzeko baina behintzat presente egoteko, zu munduko parte zarelako. Esango didate agian urrutiko kontuez ari naizela baina distantziak ez du sekula inportantzia txikitzen.

Beste finaletatik zer eskarmentu jaso duzue?
A. Arzallus. Finala berezia da, beste egune-tatik aparte dago. Horregatik joan behar da

"Emitza helmugatzat hartzen baduzu, mugatu egiten zaitu. Emitza han bukatzen delako, egun horretan. Baina bide bat hartuta badaukazu, zure egin nahien ideal bezala, bideak beti jarraitzen du"

AMETS ARZALLUS

bizitzera bereziki eta gozatzera asko zeure buruarekin, lagunekin... Taldean bizi dugun egun handi bat da. Jakinda gozatzeko modu onena, zure burua jokoan sumatzea dela. Baina jokoan egoteak ez du esan nahi txapela jokatu behar duzunik, emozio sortzaile zarena baizik.

M. Lujanbio. Nik uste dut finalean disfrutatzeke modua dela, izugarrizko tentsio horren barruan saio ona egiten aritzea. Hori norberaren helburu artistikoei dagokienez. Baina hori biltzen duen testuinguruaz kontziente izan behar dugu.

Txapelduna izendatzeaz gain, oinarrizko helburu pila bat dago, lurrazpiko erreka pila bat, agian funtsezkoagoak direnak, eta txapelketa horien bitarteko bat da. Erreka horien emaria da benetan gelditu behar ez dena. Euskaraz egiten den jardun handiena da, bertso eskoletarako sekulako hauspoa da, mediatikoki indar handia hartzen du, euskarazkoa ez den prentsan azaltzen da, euskalduna ez den jendeak entzuten du... Zurrumbilo horren funtzioa, azkenean, errealitate soziolinguistikoari eta kulturgintzari dagokiona da. Hondar alearen neurriaz ari gara, baina behar ditugu momentu horiek.

A. Arzallus. Aurreko finalean sentitu nuen, agian hura izango zela nire bizitzako egunik intentsoena. Irabazi kolektiboa eta pertsonala biak sentitu nituen: irabazi kolektiboak denboran irauten du, eta puntuez eta pos-

tuez gaindi, gerora jendeak gogoratzen dituenak bertsoak dira. Horregatik esaten duzu, “hemen axola duena botatzen dudan bertso bakoitza da”, gero jendeak gogorazten dizkizunean, hori da jasotzen dugun irabazi emotiboa, jendearen gogoan geratu izana.

M. Lujanbio. Niretzat oso markatua izan da lau urteroko ibilbidea. 2001ekoa izan zen halako leherketa, eta haren bestondoa ezin kenduta ibili nintzen hainbeste denboran. Presenteegi egon zen nire buruan, eta estilistikoki aldaketatxo bat ere egin nuen bertsoakera aldetik. 2005eko finalak utzi zidan arantza erraldoia izan zen ez nuela batere disfrutatu, eta uste dut 13.000 pertsonen artean ni bakarra izan nintzela disfrutatu ez zuena. Ez nengoelako ondo, ez neukan garbi zer egin nahi nuen, ez nintzen ziur sentitzen, ez nengoen sinistuta neure buruarekin, eta bertsoan egiteko sinistuta egon behar duzu egiten ari zaren horretan, edo zentratuta behintzat.

Finalerako presioa sentitzen duzue, edo eskuak libre?

M. Lujanbio. Lehen helburua dut arantza ateratzea, eta zentzu horretan libre sentitzen naiz, ez dudalako batere zaila izango sentsazio hobea ateratzea. Emaitza ez dakit, baina sentsazioa hobea izatea oso erraza izango da. Bere tentsio guztiarekin baina disfrutatu nahi dut. Eta batez ere, han egon, eta jabetu zer momentu bizitzen ari naizen, segunduz segundu sufritu eta disfrutatuz, baina han egonaz. Nire lehen helburua hori da. Bigarren helburua nik egin nahi dudana bertsoetik hurbil ibiltzea da. Zuk egin nahi duzun horretatik hurbil bazabiltza, emaitzak ere normalean onak izango dira. Irabaztea hortik pasatzen da. Eta puntuaketa emaitzak hain onak ez

Andoni Egaña

Maialen Lujanbio: “Bertsogintzan beti aritu da mugarrak jartzen. Meritua ematen diot, besteak beste, hainbeste urteren buruan kapaz delako bere burua txapelketa-rako motibatzeke. Konziente izan da bere katebegi funtzioaz eta bere burua helburu kolektiboetarako ere eskaini du. Bestelade, oso estrategia zalea da, eta prestaketa eta lehia gustatzen zaio. Aurten ere hortxe-hortxe ibiliko da”.

Ametz Arzallus: “Berea egingo du finalean. 24 orduz horrelako prestaketa bital batean bizi da, egun osoa dago piztuta, minutuero ari da entrenatzen. Gehien estimatzen dudana bere herri-tartasuna da, mila plaza desberdinetan kantatzen du, eta bere aurrean duen pertsonarengandik oso gertu kokatzen da beti. Bere bertso dohain guztien parean jartzen dut hori”.

badira, batetik zure buruarekin hain lasai geratzen zara, eta bestetik jendeari iritsi egiten zaio, eta hori bada txapelaren pareko sari bat. Bergarako saioa eta gero bakarkako lanaz entzun nituen komentarioekin, pentsatu nuen, txapela zenbat urruti dago honetatik? Jendeari horrela iritsiko zaion zerbait egitea lortzen badut, zer axola zait txapela beste batek eramaten badu? Edozer gauza eginez irabaztea, nik uste ez duela inork nahi. Irabazteak ondorio bat izan behar du, bide koherente batena, orduan bakarrik izango da asegarria.

A. Arzallus. Emaitza helmugatzat hartzen baduzu, mugatu egiten zaitu. Emaitza han bukatzen delako, egun horretan. Eta biharamunetik aurrera zer egin behar duzu? Gerta dakizukeen onena da ez irabaztea, irabaztea galtzea bezalakoa baita kasu horretan, hor bukatzen baita zure helmuga. Baina bide bat hartuta badaukazu, zure egin nahien ideal bezala, bideak beti jarraitzen du. Ez dut ukatuko zure zaleen komentarioek ilusionatu egiten zaituztela, baina gerta daiteke zu nahastea, eta emaitzei begira jartzea, eta horrelakoetan hobe da zure buruari begira jarri, lurrera jaitsi berriz, eta pentsatzea zer den garrantzitsuena. Eta garrantzitsuena da norabait eramango zaituen bidea.

Txapela buruz aldatuko da?

A. Arzallus. Uste dut amets kolektibotzat bizi dugula txapela buruz aldatzea. Esango nuke Egañak ere hori bizi duela. Bertsolaritzarentzat mugari izugarri bat litzateke. Gure ardura da bakoitzak beretik jartzea.

M. Lujanbio. Faseak daude eta pentsa liteke inflexio puntu bat gertatu daitekeela. Txapelduna zerbait sinbolikoa da, eta gero plazatan dena difuminatzen da, txapeldunak eta ez txapeldunak nahasten direlako, baina sinbolikoki badu bere garrantzia. n

